Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako
Foru Auzitegi Administratiboa

Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

<u>Lehendakaria / Presidente</u>
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

<u>Kidea / Vocal</u>
Mª Aranzazu Arana Learte

<u>Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria</u>
María Yeregui Hernández

**Resolución 2/2021 ebazpena**
Recurso 2/2021 errekurtsoa

IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK SL enpresak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri du Kontratazio Mahaiaren 2021eko otsailaren 16ko erabakiaren aurka, zeinaren bidez proposatzen baita NATURKLIMA IZA-CAMPEZO ABEEri adjudikatzea NATURKLIMA-Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioaren egoitza izango den eraikina eraikitzeko eta urbanizatze lanak egiteko kontratua (2020/82-AK-LE espedientea). Errekurtso horren inguruan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran eta goian adierazitako kideak bertaratuta, honako erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L. contra el acuerdo de la Mesa de contratación de 16 de febrero de 2021 por el que se propone adjudicar a UTE NATURKLIMA IZA-CAMPEZO el contrato de ejecución de las obras de construcción y urbanización del edificio destinado a la sede de la Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa-NATURKLIMA (expediente 2020/82-AK-LE), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

**LEHENA.-** Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren erregistro elektronikoan 2021eko martxoaren 5ean aurkeztutako idazkiaren bidez, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK SL enpresak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako erabakiaren aurka.

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado el día 5 de marzo de 2021 en el registro electrónico del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L. interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo referido en el encabezamiento de esta resolución.

**BIGARRENA.-** Martxoaren 9an, Auzitegian jaso ziren kontratazio espedientea eta Departamentuak errekurtsoaren inguruan egindako txostena, non eskatzen duen ez onartzeko errekurtsoa, aurkaratu ezin den egintza baten aurka aurkeztu delako.

**SEGUNDO**.- El 9 de marzo se recibió en el Tribunal el expediente de contratación y el informe del departamento acerca del recurso, en el que se solicita su inadmisión por haberse interpuesto contra un acto no susceptible de impugnación.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Kontratazio Mahaiak, 2021eko otsailaren 16an egindako bileran, onartu zuen Ingurumen Zerbitzuaren txostena, balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko adjudikazio irizpideen arabera eskaintzak baloratzeari buruzkoa, bai eta dagozkion puntuazioak ere.

Ondoren, formulen bidez ebaluatzekoak ziren irizpideen agiriak zeuzkaten gutun-azalak ireki zituen, eta balorazioaren ondoriozko puntuazioak onartu zituen.

Azkenik, erabaki zuen kontratazio organoari proposatzea guztizko puntuaziorik handiena lortu zuen eskaintzari adjudikatzea kontratua, betiere, aldez aurretik, egin beharko zaion errekerimenduari erantzunez, SPKLren 150.2 artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkezten badu eta bidezkoa den behin betiko bermea jartzen badu.

Errekurtsogileak, zeinaren eskaintza behin betiko sailkapenaren ordenan bigarren postuan geratu baitzen, eskatu du baliogabetzeko adjudikazio proposamena eta balio-judizio baten bidez kuantifikatu beharreko adjudikazio irizpideak baloratzeko beste txosten bat emateko, non aintzat hartuko diren errekurtsoa jartzeko idazkian egindako eskaerak.

**BIGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 55 c) artikuluaren arabera, errekurtsoa ebazteko ardura duen organoak, administrazio espedientea aztertu ondoren, errekurtsoa ez onartzea erabaki dezake, argi dagoenean errekurtsoa eragin duen egintza ezin dela aurkaratu 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Errekurritu den Kontratazio Mahaiaren erabakia

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**PRIMERO.-** Reunida el 16 de febrero de 2021, la Mesa de contratación aprobó el informe del Servicio de Medio Ambiente relativo a la valoración de las ofertas en función de los criterios de adjudicación cuya cuantificación depende de un juicio de valor, así como las puntuaciones correspondientes.

A continuación, procedió a la apertura de los sobres que contenían la documentación de los criterios evaluables mediante fórmulas y aprobó las puntuaciones resultantes de su valoración.

Y finalmente acordó proponer al órgano de contratación la adjudicación del contrato a la oferta que había obtenido la mayor puntuación total, siempre que previamente, en respuesta al requerimiento que deberá serle hecho, presente la documentación a la que se refiere el artículo 150.2 LCSP y aporte la garantía definitiva que sea procedente.

La recurrente, cuya oferta quedó en segundo lugar en el orden de clasificación definitiva, solicita que se anule la propuesta de adjudicación y se emita nuevo informe de valoración de los criterios de adjudicación cuya cuantificación depende de un juicio de valor, en el que sean atendidas las peticiones que realiza en el suplico del escrito de interposición del recurso.

**SEGUNDO.-** El artículo 55 c) de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP) prevé que el órgano encargado de resolver el recurso, una vez examinado el expediente administrativo, podrá declarar su inadmisión cuando constare de modo inequívoco y manifiesto que el acto contra el que se ha interpuesto no es susceptible de impugnación de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44.

El acuerdo de la Mesa de contratación que se

ez da ageri SPKLren 44.2 artikuluan aipatutako egintzen artean, kontratazio arloko errekurtso berezia jar dakiokeen egintza gisa.

Ez da kontratua adjudikatzeko egintza bat, SPKLren 150.1 artikuluan aurreikusitako adjudikazio proposamen bat baizik, Kontratazio Mahaiak egina, kontratazio organoari laguntzeko eginkizunean [SPKLren 326.2.d) artikulua].

Izapidezko egintza bat da, 44.2.b) artikuluan errekurtsoa jar dakiekeen izapidezko egintzen artean agertzen ez dena eta, berez, lizitatzaileei inolako kalterik eragiten ez diena. Ez du zuzenean edo zeharka adjudikazioari buruzko erabakirik hartzen, ez du prozedurarekin jarraitzeko ezintasunik ezartzen, eta ez du defentsa-gabeziarik edo kalte konponezinik eragiten eskubide edo interes legitimoetan.

Horrenbestez, errekurtsoa ez onartzea deklaratu behar dugu, aurkaratu ezin den egintza bat duelako xedetzat.

**HIRUGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegiak errekurtsogileari isun bat jartzea ekar dezakeena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

**ERABAKITZEN DU**

Ez onartzea IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK SL enpresak jarri duen kontratazio arloko errekurtso berezia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia

recurre es un acto que no figura entre los mencionados en el artículo 44.2 LCSP como susceptibles de recurso especial en materia de contratación.

No es un acto de adjudicación del contrato, sino una propuesta de adjudicación de las previstas en el artículo 150.1 LCSP, formulada por la Mesa de contratación en su función de asistencia al órgano de contratación [artículo 326.2.d) LCSP].

Se trata de un acto de trámite que no figura en el artículo 44.2.b) entre los actos de trámite susceptibles de recurso, y que, por sí mismo, no causa perjuicio alguno a los licitadores. No decide directa ni indirectamente sobre la adjudicación, ni determina la imposibilidad de continuar el procedimiento, ni produce indefensión o perjuicio irreparable a derechos o intereses legítimos.

Por consiguiente, debemos declarar la inadmisión del recurso por tener por objeto un acto no susceptible de impugnación.

**TERCERO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ACUERDA**

Inadmitir el recurso especial en materia de contratación interpuesto por IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal

Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2021eko martxoaren 12a / San Sebastián, 12 de marzo de 2021.**